

Baroja dela eta

azkenean, 1.898.ko mendeurrenaren ospakizunak espero baino xamurragoak gertatzen ari zaizkit. 1.992garren urtekoak, aldiz, herbesteraketan pentsatzeko modukoak iruditu zitzaizkidan.

“El Diario Vasco” aldizkarian Pío Caro Baroja-k horrela dio -edota horrela jasotzen ditu bere hitzak kazetariak:-

“Las conmemoraciones del 98 son una disculpa más para consumir, para que circule el dinero y que algunos se llenen los bolsillos...”

Alegia, 98.aren inguruko ospakizunak kontsumitzeko beste aitzaki bat direla, dirua atzera eta aurrera ibil dadin eta batzuk patrikak bete dituzten.

Oraingo honetan ere, betikoa erantzun behar: “Bai, baina...” Zenbait argitaletzek idazleen eskubideak nola zapaltzen dituzten ondotxo dakien batek badu, noski, horrela hitzegiteko eskubiderik. Baina, 98.ko ospakizun hauek garai hartako idazle batzuen izena berkolokatzeko baliogarriak bihurtzen badira eta idazle gazteek ospea, errekonozimendua -eta bide batez, xoxak- lortzen badituzte, ba betoz! Ongi etorriak!

500 libra esterlina eta beretzako bakarrik den gela behar omen du hasteko idazle saiatu batek. Hala zioen behintzat Virginia Woolf-ek. Jakin behar, ordea, zenbat pezeta, zenbat euro, ote diren libra horiek gaur egun.

Pío zaharrak lortu zituen baldintza mitikoak eta buru belarri murgildu zen literatur lanean. Orain, berak existitzen ez zela zioen belaunaldi baten eskutik datorkigu berriro. Hitzaldi, liburu, erakusketak, ikastaro, mintegi, aipamenak han hemenka... Idazle gazteek Pío zaharrari buruzko liburak idatzi, saldu eta sinatu egiten dituzte liburudendetan. Inbiri apur bat izango dute Pío zaharrak zerbait argitaratu ondoren bidai-ihes bat antolatzen zuela pentsatzen jartzen direnean. Pío zaharrak bazion kritikari gorroto eta arrakastari beldur.

Mendeurrena gora eta behera dabilkigun bitartean, aitortu beharra dago jende batek, belaunaldi batzuk, frankismoaren garaian hazitakoak, ale-

gia, ezer gutxi dakigula 98.garreneko Belaunaldiari buruz. Erregimenari lagungarria izan zitekeen heinean adierazten ziren gauzak eta 98.garreneko idazleen lanak galbai trinkotik pasatzen ziren. Frankismo garaiko gela zatar eta hotz haieran Azorinek bazeukan bere tokia. Irakasleak liluratu egiten ziren esplikatzekoan eta ikasleak, -betiko moduan- aspertu egiten ziren. Beste idazle bat, oso maitia zutena, Unamuno zen. Nahiz eta gure irakasle batek behin aitortu “Unamuno no es de entender” literatur klasean kezka, fedea, krisialdiak, Don Quijote, paperezko pajaritak eta Santo Kristoak nahastu egiten ziren. Ikasleak, betiko moduan, aspertu egiten ziren.

Valle-Inclánek xeblearegoa zirudien. Dena den, ikasleek ez zuten zorte handirik. Interesgarria ematen zuen tipoak baina irakaslea ez zen hainbeste liluratzen. Ikasleentzat betikoa; azpimarraitu, buruz ikasi eta betiko moduan, aspertu. Lan egin behar, arratsalde ilun eta euritsu hartan, lehiotatik begira.

Hara non, arratsalde euritsuetaz mintzatzen zen tipo bat: Machado. Irakaslegoa banandua agertzen zen. Batzuk erabat liluratzen ziren eta klase-ordu osoa hizketan pasatzen zuten, aurreko lekzioa galdetu gabe eta beste batzuek, bi Machado zeudela, Manuel eta Antonio, eta azken honek, poeta handia izaki, oso gaizki bukatu zuela, hain gaizki ere, non Lister berari ere, olerki bat eskeini ziola, aldarrikatzen zuten. Ikasleek ez zekiten zein izan zitekeen Lister izeneko hura, baina antzematen zuten ez zegoela hura galdetzeko girorik. Bi taldekoen ikasleak aspertu egiten ziren.

Irakasle batzuk ez zuten Pío zaharrari buruzko aipamen berezirik egiten. Beste batzuk sutu egiten ziren bere kontra: gaiztoa, maltzurra, erlijioaren kontrakoa, idazle utzia eta narratsa... Zorionez izan genuen maixtra bat “Zalacaín, el aventurero” irakurri erazi ziguna. Ikasleak, oraingo honetan ez ginen aspertu.

Gertakizun txiki batek lagundu zidan Barojarenganako bidean. Arratsalde sargori bat zen, hondartzatik gentozen ama eta ahizpak, hondarrak min ematen zidan sandalietako zirrikietan, egarriz eta nekaturik nentorren. Gure parean apaiz altu bat, -garaik agintzen zuen, apaizak

sotanz jantzita joan behar zutela-, txapelaz eta traje urdin ilun batez jantzitako gizon sendo bat eta bien artean, gizon txiki eta argal bat. Zerbait oso interesgarria kontatzen zuela pentsatu nuen, beste biak bere aldera makurtzen baitziren. Gizon txikia oso diferentea zen. Oso diferente jantzita zetorren, zapata argiak zituen eta galtzen gainetik jarritako alkandora luze bat zuen soinean.


Gure amak "¡Adiós, Pelay!" esan zion eta Pelay izeneko harek "¡Adiós! ¡Recuerdos a Rosario!" erantzun zuen. Anekdotak ez zuen garrantzirik izango puntu honetaraino. Baina galdetu genuen nor ote zen gizona, gure amak izeba Rosario ezagutzen zuen idazle bat zela esan zigun eta orduan bai harritu egin ginela. Idazle bat, liburutakoak bezalakoa, gure auzoan. Ez genuen besterik ezagutzen. Idazle bat... Atzeraka begiratu genuen maiz, gizon txikiak, Pelay izenekoa, lagunekin solasean urruti gelditu zen arte. (Urte mordo baten ondoren, Migueli hauxe kontatu nioenean, farra egin zuen, apaiza nor ote zen ez zuen gogoa, baina "traje urdin ilunez jantzitako gizon sendoa" Jose de Artetxe izango zela ia-ia seguru esan zidan. Irripartsu, batera, bi idazle ezagutu nuela zion)

Kontuak kontu, 98.-eko Belaunaldia examinetan agertzen zen. Batez ere, Unamuno... Unamuno ikasi egin behar zen, ulertu ezin omen zen ulertu, beraz, irtenbide bakarra haren lanak zeintzu ziren buruz ikastea zen. Kontra egiteko edo, beste estiloko idazleen idatziak irakurtzen genituen; Machado, Lorca (1898-an jaioa eta aurten denon ahotan, noski) eta Baroja. Etxean, norbaitek, adibidez, amaren lehengusuak, karlixta eta xaxiletraua, Pío zaharra gaitzetzen zuenean eta "Juanita, la larga" irakurtzeko gomendatzen zuenean, bazegoen beti Pelayengana jotzerik Barojaren izena defendatzeko. "Ba, Pelayk idazle ona dela dio" esan eta lehengusuak eraikitako harresia bertan erortzen zen.

Orain Pelay joan zaigu.

Ez dugu izango gure artean gizon txiki eta argala.

Itzali da begirada sakona, marrantatu da betirako ahots ergela.



Joan zaigu gizon ausarta, Pío zaharra defendatzeko beldurrik izan ez zuena, Errenteriarra etortzeko beldurrik izaten ez zuena.

Joan zaigu 84 urteko gaztea, lehengo garaiak okerragotzat jotzen zituena.

Joan zaigu pena askorekin, askotan herri berde, euritsu eta lakar honek emandako penarekin.

Pena handi eta txikiak... Txikien artean, agian, Pío zaharra bisitatzera joan eta honek Pelay ezagutu ez...

Laister jaiak, musika, dantzak, afari eta zaratak. Ihes

egiteko gogoia ere bai, noizbait. Pagotzarte aldera edo, argitaratzen ari diren libururen bat besapean, itzalean, horrelako gauzak irakurtzeko: "Pío Baroja, partidario de la novela abierta, concebida como un fluir en sucesión..." "La inmensa obra de Baroja nos abrió los ojos a la realidad en estado bruto" "el creador del cuento moderno..." "Baroja, vasco lúcido y que conocía el paño"

Edo Miguel bera irakurtzea, edo Baroja...

"Eran trece hombres, trece valientes curtidos en el peligro y avezados a las luchas de la mar. Con ellos iba una mujer, la del patrón (...) De repente, en la agonía de la tarde, sonaron las horas en el reloj de la iglesia de Iciar, y luego las campanadas del Angelus se extendieron por la mar como voces lentas, majestuosas y sublimes.

El patrón se quitó la boina y los demás hicieron lo mismo. La mujer abandonó su trabajo y todos rezaron, graves, sombríos mirando al mar tranquilo y de redondas olas"

Misoginoa? "Impío Don Pío"? Idazle zatarra eta narratsa?

Asmo onak, arratsalde beroak, lasaitasunean imaginatu Martin de Zalakain eta bere koinatua Bautista, Goizueta aldera doazela kontrabandoz joserik. Amestu Arcadia berde bat badagoela eta bertan gizon txiki eta argala Pío zaharrarekin topatzen dela.

- Soy Pelay -esaten dio.

Alferrik. Oraingo honetan ondo ezagutu du gure Pelay idazle zahar eta ospetsuak.